

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak TDTko autonomia erkidegoko beste bi lizentzia eta tokiko lau (hiru Iruñean eta bat Tafallan) esleitu ditu

Lehiaketara aurkeztutako bi operadorek, Abian Komunikazioa SL eta Xaloe-k, autonomia erkidegoko lizentzia nahiz tokikoa lortu dituzte Iruñerako

Viernes, 05 de julio de 2013

Iragan abuztuan deitutako lurreko telebista digitaleko (TDT) [autonomia erkidegoko](#) lizentzia jasotzeko (bi kanal) eta [tokiko](#) lizentzia jasotzeko (hogei kanal, lau Industria Ministerioak Nafarroarako ezarritako bost mugape bakoitzean) lehiaketetara aurkeztutako zazpi telebista-proiektuetatik sei proposatu ditu gaur Balorazio Mahaiak, dagokien lizentzia eman ahal izateko.



Nafarroako Jauregioko fatxada.

Honako hauek dira:

- Autonomia erkidegoetako TDT kanalak: Abian Komunikazioa SL (100 puntutik 74,55 puntu) eta Xaloe Kultur Elkarteak (71,20).

- Iruña mugapeko tokiko kanalak: Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea SA (73,50/100), Abian Komunikazioa SL (72,15) eta Xaloe Kultur Elkarteak (66,85).

- Tafalla mugapeko tokiko kanala: Zona Media Televisión (50/100).

Sei telebista-proiektu horietako lau sustatzailerik (lehiaketan aurkeztutako bi operadorek, Abian Komunikazioa SL eta Xaloe Kultur Elkarteak, autonomia erkidegoko nahiz tokiko lizentzia lortu dute Iruñerako) Komunikazioko Zuzendaritza Nagusiak errekerimendua egin die, lehiaketako pleguen arabera, hamabost egun balioduneko epean beharrezkoa den administrazio-dokumentazioa aurkez dezaten Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariari gaur Balorazio Mahaiak egindako proposamen igorri ahal izateko, hala, lizentziaren emakida datorren abuztuan gauza ahal dadin.

Nafarroako TDT lizentzien lehiaketa

Canal 62 autonomia erkidegoko estaldurako multiplex-ean dauden telebistako bi kanal digitalak hartzen dituen autonomia erkidegoko lehiaketa deitu zen, bi kanalak hutsik geratu eta gero, Canal 4 Navarra Digital SAK 2012ko martxoan ikus-entzunezko zerbitzuen kudeaketarako zuen

lizentziari uko egin ondoren

Autonomia erkidegoko TDTra aurkeztutako telebista-proiektuetako bat bakarrik geratu da Balorazio Mahaiak egindako proposamenetik at: Vaughan Radio SL; izan ere, lortutako 63.04 puntuek hirugarren eskaintza bihurtzen dute (bi lizentzia lizitatuta).

Bestalde, tokiko estaldurako lizentziaren lehiaketak ondorengo mugapetako tokiko estaldurako bost multiplexetan jasotako hogeit hamar kanal hartzen zituen: Lizarra (25. kanala), Iruña (38. kanala), Zangoza (45. kanala), Tafalla (31. kanala) eta Tuterako (42. kanala). Lehiaketa hori deitu zen 2012ko urtarrilean Televisión Popular de Navarra SAK mugape horietako bakoitzerako zituen lizentziei uko egin ondoren.

Kasu horretan, Balorazio Mahaiak lizentzia aurkeztutako lau telebista-proiektuei ematea proposatu du (hiru Iruñerako eta bat Tafallarako). Gainerako mugapeak –Lizarra, Tuterako eta Zangoza– hutsik geratu dira ez dutelako inolako telebista-proiekturik aurkeztu.

Baloratzeko irizpideak

Bi lehiaketetako balorazio-mahaia diziplina anitzeko talde batek osatu dute, eta bertan sartzen dira: hiru kazetari, ekonomialari bat eta telekomunikazioetako ingeniari bat, Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuei buruz [5/2012 Foru Dekretuak](#) ezartzen dituen bi kideez gain (abokatu eta kontu-hartzaile bat).

Bi lehiaketetako balorazio-irizpideak oso antzekoak izan dira, nahiz eta alderen bat bazegoen estaldura-esparruen arabera. Biak ala biak hiru maila nagusitan batu ziren: telebista-eskaintza, puntuazioaren % 55 arte; ekonomia eta enpleguaren sorrera, % 30; eta egokitzapena nahiz berrikuntza teknikoa, % 15.

Telebista-proiektuaren blokea izan da puntuazioko atal garrantzitsuena. Bertan eskaintako programazioan aniztasuna nahiz kalitatea baloratu dira, eta autonomia erkidegoko lehiaketan, parrillan konbinatu behar ziren: ekoizpen propiorako espazioa (10 puntu); Nafarroari buruzko programazioa (15 puntu), eta lizitatuak proposatutako beste eduki batzuk (15 puntu) herritarrentzako eskaintza erakargarriak osatuko dituztenak. Telebista-espektroaren aberastasuna zaintzeko, TDT lizentzia ez zuten proiektuak baloratu zituen beste azpiatal bat sortu zen (5 puntu); azken azpiatalak, berriz, euskarazko ekoizpen propioko euskarazko edukiak sustatzeko balio zuen (5 puntu).

Bestalde, tokiko telebisten lehiaketan, tokiko programazioa eta Nafarroari buruzko 20 punturekin baloratu da; bien bitartean, lizitatuak berriaren kontzeptua desagertu zen, une horretan esleitutako lizentziarik ez egotean, eta 5 puntuko balioa ematen zen lizentzia ez transmititzeagatik hura indarrean dagoen bitartean. Gainerakoan, autonomia erkidegoko lehiaketako baldintza berberak izan dira.

Ekonomia sortzeko atalak (30 puntu) bietarako puntuazio bera zuen. Atal horretan telebistako proiektuaren sendotasuna nahiz koherentzia aztertu ziren ikuspegi pertsonal batetik, bai eta baliabide ekonomiko zein finantzarioena ere, eskaintza bideragarri eta kaudimenduna bermatze aldera. Baremoak 15 puntu eman zituen lizitatuak emandako proiektu ekonomiko-finantzarioetarako (8 puntu antolaketareduari; 5 finantza-aurrekonturako; eta 2 behin-behineko finantza-egoeretarako) eta beste 15 enplegua sustatzeko; haietatik 12 telebista-enpresa bermatzen duten lanpostuetarako eta beste 3 desgaituak kontratatuzko eta zereginak kanporatzeko enpleguko eta gizarteratzeko/laneratzeko zentro berezietan.

Azkenik, 15 puntu arte eman dira aurkeztutako eskaeren egokitzapenerako eta berrikuntza teknikorako. Esleipendun proiektuek kalitatezko telebista-zerbitzu bat eskaintzeko bermeak izatea bilatzen zuen, teknologia berriak jasoko dituen eta ingurumena ahalik eta gehien errespetatuko duena. Ekoizpeneko estudioen kalitatea eta egokitzapenak, bai aurreikusitako unitate mugikorrenak ere (zerbitzuaren azpiegiturak tokiko telebisten kasuan) 6 puntu arteko puntuazioa lortu zuten; zabalkunde-plana eta zerbitzuaren kalitatea, berriz, 3 punturekin baloratu ziren (4 puntu tokiko telebisten lehiaketan), eta berrikuntza teknologikoak (edukiak Internetez eta 2.0 teknologiaz eta abar erabiliz eskaintzeko konpromisoa) 6 puntu arte (5 puntu tokiko estaldurako lehiaketan).